

Caipirinha

- Bueno, bada, Boise, oso ondo pasa Boisen! Zure gurasoak ikusiko dituzu!
- Bai!
- Oso ondo pasa.
- Zuk ere bai! Zer egingo duzu abuztuan?
- Bada, ikusiko dugu... Zerbait pentsatuko dut! Kontatuko dizut!
- Oso ondo, agur!
- Xabi, non zaude? Dena oso ilun ikusten dut.
- Ei! Kaixo! Ez dakit, seinale txarra daukat. Entzuten didazu?
- Bai, entzuten dizut.
- Bada, kontatu, kontatu! Zer moduz Boisen?
- Bada, izugarri ondo! Oso ondo pasatzen ari naiz!
- Pozik zaude, bai! Ikusten dut!
- Bai, poz-pozik! Momentu honetan etxean gaude.
- Zure gurasoak ere bai?
- Bai, hemen daude!
- Kaixo, Xabi!
- Aupa, Xabi!
- Hepa! Zer lotsa!
- Lasai, telebista ikusten ari dira; ez dira etorriko.
- Bueno, bueno, bueno! Baina non zaude? Zer ari zara edaten? Eta zer daukazu ilean?
- Punta Canan nago, *caipirinha* edaten ari naiz eta lore dominikarrak dauzkut ilean.
- Benetan? Ja, ja, ja! Eta bakarrik zaude? Hor ez dago inor!
- Ez, Josu, Nerea eta Maiterekin nago, eta orain bainatzen ari dira.
- Oooo! Eta denak zaudete erreta?
- Bai, neska! Aurpegia, lepoa, bularra, sorbaldak... Hemen eguzkiak nahiko gogor jotzen du.
- Nahiko? Oso gogor, ezta? Eta mendira joan zarete?
- Mendira? Uf, ez! Bero honekin ezin da mendian ibili.
- Bai, ibili daiteke! Mendian ur asko dago! Putzu eta ur-jauzi asko daude!
- Ur-jauzia, ur-jauzia... Hemen keinu inportantea hau da.
- Zer esan nahi du horrek?
- Honek, Dominikar Errepublikan, “gose naiz” esan nahi du. Keinua hau egiten da, eta zerbitzariak janaria ekartzen du. Ikusi, ikusi!
- Ui! Ai!
- Xabi! Adarra jotzen ari zara! Zu etxean zaude!
- Ba bai, etxean nago. Baina... *Caipirinha* edaten ari naiz!
- Zu bai aktore ona!
- Bada, bai!